

2017ko aurrekontuak onartzeko plangintza

Helburua: **Adostasun handiena** lortuko dauan **aurrekontua** onartzea eta **helburu** amankomunak adostea hurrengo ekitaldirako. **Urtarrilerako** sail eta erakunde autonomo guztiak aurrekontuak izatea lortu nahi da.

Aurreikusitako pausua	Data
1. Sail eta erakunde autonomoen aurrekontu proposamenak excel berean sartuta egongo dira.	irailean
2. Aurrekontuak lantzeko lan taldea eratuko da. Kontuhartzailea, idazkaria, ATB, Alkatea eta alderdi bakoitzetik bat. Beste teknikari batzuk ere parte hartuko dabe beharizanen arabera. Prozedura eta epeak adostuko dira.	Irailak 29
3. Legealdiko plangintza aurkeztuko da. Lortu nahi diren helburuak aurrekontuekin batera onartuko dira.	Irailak 29
4. Kontuhartzaileak aurrekontuen azalpen orokorra emongo dau eta egoera ekonomikoa azalduko dau (udalkutxa, diru sarreren portaera, inbertsio aukerak...)	Irailak 29
5. Sail eta erakunde autonomoen proposamenak bananduko dira	Urriak 5
6. Diru sarreren azalpena eta konportamentua azalduko dute kontuhartzaile eta errenta teknikariak. Ondarea ere aztertuko da diru sarrerak lantzerakoan. Ordenantza fiskalak, zergak, tasak eta prezio publikoak landuko dira	Urriak 5, 6, 13,14
7. Ordenantza fiskalak, tasak, zergak eta prezio publikoak onartu kontu batzordean eta osoko bilkuran	Urriak 19, 24, 27
8. Gastuen azterketa.	Urriak 20, 28. Azaroak 3, 10
9. Partaidetza prozesua diseinatu	Urriak 20
10. Herritarrakaz aurrekontuak kontrastatu eta inbertsioetan lehentasunak finkatu	Azaroak 10-30
11. Datu danak programan sartuta. 1go berradorea eta 2. berradorea	Azaroak 3, abenduak 9
12. Erakunde autonomoetan aurrekontuak aurkeztu eta onartu	Azaroak 21-abenduak 9
13. Kontuhartzailearen txostenak	Abenduak 16
14. Aurrekontua azaldu eta onartu kontu batzordean	Abenduak 19
15. Aurrekontua onartu osoko bilkuran	Abenduak 22

